



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



## **“SUPERLÓPEZ” IZANGO DA IKUSGAI VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN “BIDAIAKO ZINEMA ZIKLOA”N**

**Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteak** bat egin du **B the travel brandek** eta **Fundación Academia de Cine** antolatutako **Bidaiako Zinema Zikloarekin**, eta hor kokatzen da hurrengo ekainaren 24an 19:00etan egingo dugun **Victoria Eugenia Antzokian Superlópez**en emanaldia.

Filma protagonistetako batek aurkeztuko du, **Gracia Olayok**, eta filmaren emanaldiaren ondoren egingo den solasaldian ere parte hartuko du.

Sartzeko, berriz, gonbidapena behar da. **Ekainaren 17tik aurrera** hartu ahal izango dira Victoria Eugeniako leihatilan (gehienez 4 pertsonarentzat).

**B the travel branden** eta **Fundación Academia de Cineren Bidaiako Zinema Zikloa** 2018ko Espainiako zinema onena disfrutatzeko aukera ederra da, pantaila handian eta dohainik. Zikloa, egiten den lehendabiziko urte honetan, Palma, Sevilla, Valentzia, Donostia, Bilbo, Gijon, Valladolid, Malaga, Zaragoza eta Bartzelonatik pasako da eta, era horretan, Espainiako zazpigarren artea herrialdeko hainbat bazterretara heltzen lagunduko du. Emanaldiak aire librean izango dira, hiriko antzoki edo beste toki enblematiko batzuetan, eta hainbat aktore etorriko dira gurera, adibidez, Antonio de la Torre, Eva Llorach, Gracia Olayo, Carolina Yuste edo Javier Gutiérrez.

Nora Navas Zinemaren Akademiako presidenteordeak ondorengo azaldu du: *“Ziklo honen bitartez, Academia de Cine Fundazioak bere Madrilgo egoitzako jardueratik atera nahi du, gure zinematografia eta profesionalak Espainiako beste geografia puntu batzuetara hurbilduz. Oso pozik gaude lehendabiziko aldiz **B the travel brand** bidaide izateaz, eta espero dugu Espainiako zinema onena hiriko txoko enblematikoetan ikusteko egokiera hartuta, ikusleek gozatua hartzea”.*



**Fantasiatzko eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



## PROYECCIÓN DE “SUPERLÓPEZ” EN EL TEATRO VICTORIA EUGENIA DENTRO DEL “CICLO DE CINE VIAJERO”

La **Semana de Cine Fantástico y de Terror de San Sebastián** se une al **Ciclo de Cine Viajero**, organizado por **B the travel brand** y la **Fundación Academia de Cine**, con la proyección en el **Teatro Victoria Eugenia** el próximo 24 de junio a las 19:00 de **Superlópez**.

La película será presentada por una de sus protagonistas, **Gracia Olayo**, que también participará en un coloquio con el público después de la proyección.

La entrada será con invitación. Podrán retirarse **a partir del 17 de junio** en la taquilla del Victoria Eugenia (máximo 4 por persona).

El **Ciclo de Cine Viajero** de **B the travel brand** y la **Fundación Academia de Cine** es una oportunidad de disfrutar del mejor cine español de 2018 en pantalla grande y de forma gratuita. El ciclo pasará en su primera edición por Palma, Sevilla, Valencia, San Sebastián, Bilbao, Gijón, Valladolid, Málaga, Zaragoza y Barcelona, contribuyendo a llevar el séptimo arte español a diversos rincones del país. Las proyecciones se harán al aire libre, en teatros u otros lugares emblemáticos de las ciudades y contarán con la visita de actores como Antonio de la Torre, Eva Llorach, Gracia Olayo, Carolina Yuste o Javier Gutiérrez.

Nora Navas, vicepresidenta de la Academia de Cine, ha explicado: *“Con este ciclo la Fundación Academia de Cine quiere trascender la actividad en su sede de Madrid acercando nuestra cinematografía y sus profesionales a otros puntos de la geografía española. Estamos encantados de tener por primera vez como compañeros de viaje a **B the travel brand** y confiamos que el público disfrute de esta oportunidad de ver el mejor cine español en espacios emblemáticos de su ciudad”*.